



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko otsailaren 25a

16 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituena. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituena. Osoko Bilkurak bazter utzia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Lankidetz hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artekoa, Espainiako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko. Osoko Bilkuraren baimena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da laneko jazarpen morala ekiditeko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ordenagailuak erosteko laguntzak mailakatze-irizpideen arabera egin daitezela. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da udalen erabakiak oztopa ez ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan. Toki Administrazioko Batzordeak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egin dezan. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da teresatarren ikastetxea zen eraikineko obrak ez egitera Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Nafarroako Kontseiluaren iritzia jakin arte. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala has ditzan Burlatan beste ikastetxe publiko bat eraikitze behar diren tramiteak, Ermitaberri ikastetxean egun jasan behar diren pilaketa arazoei konponbidea emateko. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin behar diren kudeaketak egin ditzan, A-15 autobideko erabiltzaile txartelak berritzeko. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak bazter utzia (10. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat oposizio bitartez eta txanda irekian betetzeko. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera bidaltzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituen

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituen Foru Lege proiektua baztertu zuen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak

aurkeztu eta 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokratik Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko irailaren 24ko 93. Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

D saila:
HITZARMENAK

Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artekoa, Espainiako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko

OSOKO BILKURAREN BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artekoa, Espainiako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egi-

teko". Haren testua 2001eko abenduaren 11ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen moralak ekiditeko neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko otsailaren 14an egin-dako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen moralak ekiditeko neurriak har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen moralak ekiditeko neurriak har ditzan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak har ditzan:

- Enpresario eta langileentzako informazio eta dibulgazio plan bat sustatuko du osasunarentzat lantokian jazarpen moralak jasateak dakartzan ondorio negatiboak buruz, jazarpen moral hori lanaren antolamendurako eta lan harremanetarako arrisku faktoretzat har dadin. Ondorio horietarako, lantoki bakoitzak lan arriskuak ebaluatzerakoan kontuan hartuko du jazarpen moralak ere, eta hari aurre egiteko plangintza bat egingen da.

- Informazio plan bat egingen du laneko jazarpen moralari buruz, enpresetako ikuskatzailetzaren arduradunentzat, haren praktika aitortu dezaten hura jasaten duen pertsonak salatzen duenean edo antzematen duenean, prebentzioaren arloko zaintza eta kontrol eginkizunak bete daitezen.

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan artean zabalduko ditu laneko jazar-

pen moralak sortzen dituen ondorioak, behar bezalako diagnostikoa egin dezaten eta lanean sorturiko gaixotasun gisa har dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak har ditzan:

- Behar diren neurriak hartuko ditu lan gaixotasunen katalogoa aldatu eta jazarpen hori jasaten duen pertsonari zor zaizkion eskubideak ezartzeko.

- Begiratuko du lan gaixotasunak eta lan istripuak kudeatzen dituzten Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek beren ardurak har ditzaten lanean gertaturiko jazarpen moralak sorturiko ondorioak tratatu, zaindu eta birgaitzeko.

- Behar diren aldaketak sustatuko ditu Lanei Aurrea Hartzeko Legean, lantokiko jazarpen moralak lan arriskuei aurrea hartzeko arauen ez betetzetik sortzen diren zehapen larriekin.

- Indarreko legeetan behar diren aldaketak sustatuko ditu, haien lan harremanetan gertatzen den lakra lazgarriaren agerpenari egokitzeko. Zehazki, Langileen Estatutuan, Lan prozedurari buruzko Legean, Gizarte mailako arau-hauste eta zehapenei buruzko Legean, Estatuko funtzionario zibilei buruzko Legean eta, bereziki, Zigor Kodean. Azken kasu horretan ezarriko da jazarpen moralari dagokion zigorra bakarrik emanen dela, ebazpen judizial baten edo zehapen administratibo baten aurrean, jazarpena egiten duenak praktika honen aurreko egoera berrezartzen ez duenean (jazarpena zigortuko da nagusitasuneko harreman batetik gauzatzen denean). Kontrako kasuan, atxilotze zigor bat eta biktimarentzako kalteordain bat ezarriko da.

- Aurrera jarraituko da era guztietako jazarpenari buruzko lege bidezko definizio baten bila. Lege horrek, lege organiko baten izaerarekin,

behar diren arloetako aldaketak sartuko ditu indarreko lege testuetan.

Lege horretan, honela definituko da laneko jazarpen morala: "Lan harreman baten markoan, bere kargua, funtzioa edo eginkizuna dela eta daukan botere egoeraz baliaturik –harreman hierarkikoa izan ala ez izan, zuzendaritza edo dizipli-

na ahalmenak izan ala ez izan–, jazarpen psikologikoko jokamoldeez baliatzen dena, beste langile baten edo batzuen duintasunaren aurka eginez eta osasun psikikoa arriskuan jarriz –ondorio fisikoekin ala gabe–, behin eta berriz, biktimak xaxatuz, arlo zibileko eta administratiboko eta lan eta zigor arloko lege-hausteen erantzuleak izanen dira, ondoko artikuluen arabera..."

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordenagai-luak erosteko laguntzak mailakatze-irizpideen arabera egin daitezen

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordenagai-luak erosteko laguntzak mailakatze-irizpideen arabera egin daitezen".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko otsailaren 14an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udalen erabakiak oztopa ez ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udalen erabakiak oztopa ez ditzan".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko otsailaren 14an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Toki Administrazioko Batzordeak, 2002ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen 11. artikulua bete dezan, non ezartzen baita zein diren onura fiskalak eta zein Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarriak argitaratzeko tasaren onuradunak, eta Nafarroako toki entitateak salbuetsi eta ez diezaiela tasarik likidatu.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2002ko otsailaren 7an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-, kultura- edo familia-egoerarengatik hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleak, gutxiengo etnikoetakoak eta etorkinak diren ikasleak hiri-ikastetxe zehatz batzuetan eta "laguntzako" deitzen zaien ikasgela paraleloetan biltzea antolaketa-neurri iraunkor gisa aintzat hartzen duen hezkuntza-politika alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planean onetsitako aniztasun-zaintzako neurriak abiaraz ditzan eta hezkuntza-baliabide teknikoak nahiz giza baliabideak bidera ditzan curriculumaren egokitzapenetarako eta ikasle bakoitzaren jarraipenerako. Halaber, familian nahiz ingurune sozial eta kulturean behar-egoeran egoteagatik hezkuntza-premia bereziak ditzuten ikasleak integratzeko eta ikasgela arruntean eta eskola-ingurunean egokitzeko aparteko laguntzak bidera ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du derrigorrezko hezkuntzako zikloetan itunpeko ikastetxe publiko eta pribatu gertatzen ari diren egoerak azter ditzan. Izan ere, sozial edo kulturalki egoera behartsuan dauden ikasleak ikasgela berezi edo laguntzakoetan biltzen ari dira, eta horrela bereizitako ikasle batzuei eragotzi egiten zaie hezkuntza-programa arruntetan eta berriki sortuetan (hala nola atzerriko hizkuntzak ikastekoak) parte hartzea, eskola-atzerapena gainditzeari buruzko argudioa erabiliz, bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egin dezan

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEAK ONETSIA

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak, 2002ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteko epean kanpaina bat egin dezan Nafarroako ardoaren sustatze eta merkaturatzean eragiteko. Kanpainaren helburua salmentak eta, ondorioz, Nafarroako mahastizainek dituzten prezio-baldintzak hobetzea izanen da; horrela, sektorean eginiko inbertsioen errentagarritasuna bermatuko da.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da teresatarren ikastetxea zen eraikineko obrak ez gitera Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Nafarroako Kontseiluaren iritzia jakin arte

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da teresatarren ikastetxea zen eraikineko obrak ez gitera Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Nafarroako Kontseiluaren iritzia jakin arte".

Biltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2002ko otsailaren 7an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala has ditzan Burlatan beste ikastetxe publiko bat eraikitzeko behar diren tramiteak, Ermitaberri ikastetxean egun jasan behar diren pilaketa arazoei konponbidea emateko

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala has ditzan Burlatan beste ikastetxe publiko bat eraikitzeko behar diren tramiteak, Ermitaberri ikastetxean egun jasan behar diren pilaketa arazoei konponbidea emateko".

Biltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2002ko otsailaren 7an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko azaroaren 12ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin behar diren kudeaketak egin ditzan, A-15 autobideko erabiltzaile txartelak berritzeko

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin behar diren kudeaketak egin ditzan, A-15 autobideko erabiltzaile txartelak berritzeko".

Biltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2002ko otsailaren 7an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko azaroaren 12ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 19an

Biltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak, 2002ko otsailaren 19an egindako bil-

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat oposizio bitartez eta txanda irekian betetzekoa

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat oposizio bitartez eta txanda irekian betetzeko deialdiaren onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda 2002ko urtarrilaren 22ko 5. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ez da inolako erreklamaziorik edo akats zuzenketa egiteko eskaerarik aurkeztu.

Horrenbestez, deialdi horren 4.4 eta 6.1 oinarriek emandako ahalmenez baliatuz, honako hau ebatzi dut:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu

bat oposizio bitartez eta txanda irekian betetzeko deialdirako onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda, 2002ko urtarrilaren 22ko 5. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, behin betikotzat ematea.

2. Halaber, xedatu eta iragartzea oposizio horretako hautapen probak 2002ko martxoaren 20an, goizeko 10etan, hasiko direla Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan (Iruñeko Nabarrera kaleko 39).

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	